

PORZIUNKULAKO INDULJENZIAREN SORTZEA



I.

Animen salbazioaren zelo irazekiak, eta mundutarrak nolako ichumen negargarriarekin zijoazen amilka beren betiko kondenaziora ikus-teak zeukaten gure Aita San Franzisko Asiskoa osotoro naigabetua, eta zegokion beti Jaungoikoari miseriakordia eske pekatarien alde ziz-puru, negar, otoitz, barau eta penitentzia gogorrakin. Jaungoiko guziz errukitsuaren aĩn gogokoa dan eskaera au zala bide irichi zuen egun batean agertzea berari Jesus gure Salbatzallea, Asisko Porziunkulako Eleizan Zeruko Erregiña Soberanarekin batean, eta Franzisko umill eta doatsua, beldur santuak arturik, lurrean auspestatzen zan bitartean, Kristo Jaungoikoak itz egiñ zion era onetan:—Franzisko, animen onaren arretaz guziz azarotua ikusten zaitut. Bertatik ematen dizut bai-mena oen alde eskatzeko, alabaña autua izan zera jendeak salbatzeko eta nere Eliza zuzentzeko.

—Nere Jaun eta Aita miseriakordiazkoa, eranzun zion Franziskok, amorio biguñ eta irazekiz beregandik irtenik bezela; indazu, konfesa-tu eta damaturik Eleiz onetan sartzen diran fededun guziak irabazi dezatela induljenzi osoa, eta beren pekatu guzien barkazioa, geraturik libre oek kitatzeko edo pagatzeko zor dituzten penetatik, biurtzen di-rala batayoan emandako graziak para zituen egoera zorionekora.—Au esan ta bereala, itzulirik konfianza osoakin Maria chit santarengana, esan zion, ezen miseriakordiazko Ama eta pekatarien Bitarteko bere-zia zanez, uste zuela irichiko ziola bere Seme Jaungoikoagandik, be-raren mendeko char eta pekatari errukarri ark merezi etzuen.

Orduan zeruko graziaren Amak aurkestu zion bereala bere erraye-tako Semeari serbitzari deboto aren eskaera; eta ondoren gure Salba-

tzalle guziz maitagarriak itz egiñ zion berriro onela:—Franzisko, asko eskatu dezu, baña nere Amaren errekuak bezelako bitarteko indartsuarekin, zure zeloak are eta geiago opa dezake. Ematen dizut eskatzen didazun induljenzia osoa, baña nai det zuazela Erromara, pekatuen kateak lotu eta askatzeko eskubide osoa lurrean utzi nion Aita Santuarengana, mundu guziak ezagutu dezan nolako begirune eta estimazioa ekarri bear zayon nere Ordezkoaren sillu-siñale edo firmari.—Au esanta desagertu zan zeruko ikusketa, aingeruen soñu guziz biguñ eta eztitsuen artean.

II.

Bigaramonean Frai Maseo lagun arturik joan zan Franzisko Perusara nun arkitzen zan suertez Aita Santu Honorio III-garrena, eta adierazi zion gure Salbatzallearen mandatua. Aita Santua, ordea, uzkur zegoen aren esanari sinistamentua emateko, eta ikustean gañera induljenzia eskatzen zitzayola limosnaren pecha edo obligazio gabe Erromako Kancelariaren oituraz kontrara, laburki eranzun zion: «Zure eskaera irichi-nekeza da, era gure Kuria edo Gortean usatu ez dana.» Alaz guziaz ere, aren biotza bat batetan zeruko kolpez mugiturik, len esan zuenaz damutua bazegoen bezela, eta utsegiña zuzendu nabez, esan zion bereala beiñ eta berriz eta berriz ere: «Kontentu nago, Franzisko, eta ematen dizut eskatzen didazun grazia.»

Bazirudien onekin lanbide ura bukatua zegoela, baña etzan ala; an zeuden Kardenalak eziñ geiago arritu ziran Eleizako Buruak aiñ aña eta erraz ontzat eman zuelako eskaera aiñ arrigarria, eta alegiñik asko egiñ zioten burutik kentzeko, esanaz: «Aita Santua, oartu bedi Berorren Santutasuna, induljenzia ori, geiegia ezezik, Jerusalemgo Leku Santuen eta Erromako Estazioen kaltean dala; zergatik, ¿zeiñ arriskatuko da emendik aurrera ichasoak igarotzera, baldiñ opa duena gastu eta neke gichiagorekiñ irichi badezake?»

Lanbide au egiaz ibilii zan nastua eta irabiatua, eta zeuzkan beziñ zimendu sendoak ez eustera, ez dago dudarik galduko zala; baña Jaungoikoak ala naia Aita Santua egon zan irme bere esanean, eta etzuen nai izan iñola ere desegiñ emantako grazia. «Ala ere, esan zuen, jarri dezayogun muga edo neurri bat induljenziari; eta da, ez dezala iraun

onek egun oso bat baizik.» Franziskok, au aditzean buru makurtze aundia egin, eta alde egin zuen itzik esan gabe: Aita Santuak ordea, geraerazi zuen, esaten ziola: «Gizon toleskabea, ¿nora zuaz? ¿eta zer agiri daramazu zure induljenzia ori egiazkoa dala sinisterazitzeko?» Santuak eranzun zion: «Jauna, Berorren esana asko det, alabaña, Jaungoikoaren lana baldin bada, Berak ezaguerazoko du. Nik ongi dakit, Jesukristo bera dala grazia onen sinistamena ematen duen eskribaua, María Birjiña doatsua ura izkribatu, zan paper zuria eta Aingeruak beraren testiguak: au asko det....»

Bigarren urtea zijoan gauzak egoera onetan zeudela. Gau batean 1223.^{ko} Illbeltzaren aurrenean, Infernuko deabrua Zeruko Aingeru onaren irudi argi ederra arturik, joan zan gure Santuagana otoitzean zegoela, eta esan zion: «Franzisko, ¿zertarako orrenbeste nekaerazi gorputza? arindu ezazu zure penitenzien gogortasuna; jakizu zure bizitza añ bearrekoa dala Eleizarentzat nola zure Ordena berri orrentzat, eta zure penitentzia eragabeakiñ, nai baño len galtzera zuazela. Orazioa neurrian egiten danean prochugarria bada ere, gai eza eta kaltegarria da beti artan ari danarentzat, zergatik adimentuko jarduera nekosoarekin burua auldurik, biotzeko jayera arki-uste zan tokian, ez da arkitzen buruko chorabioa baizik. Desengañatu zaitetz, birtuteak neurritz gaindik diranean galtzen dute beren merezimentua, eta ez dute deus balio zentzuak giatzen ez dituenean.» Igarririk Franziskok, gis artan itz egiten ziona gezurraren aita deabrua zala, joan zan gelatik mendira, gañeko arropak erantzi, eta barrengo atorra utsarekiñ geraturik, etzan zan ausarki lar sasi aundi batean, zeñaren arantza zorrotzak larritu zioten gorputz inozentea, utziaz dana odoldua. Egikera bular-detsu onekin eranzun zion etsayaren tentazio limurkariari, eta onek iges egiñ zuen chimista bezin azkar lotsa gorrian eta arrabiz beterik.

Aita San Franziskoren garaipen miragarri onen oroipen betikoa utzi nai izan zuen Jaungoikoak, eta zan, goratzea geroztik sasia arantza gabe, mats ostoa beziñ biguña; au da miraria, gaur dan egunean Asisen ikusten dana. Onetan agertu zitzayon Aingeru talde bat, mendi guzia argitua utzi zuena, oek garaipen bikaiñ arengatik zoriona emanik, esan zioten: «Jaiki zaitetz bereala sasi orretatik, Franzisko, eta guazemazu Eleizara, bada an dagozkizu ichedoten Kristo gure Jauna, eta Maria bere Ama chit garbi, gure Erregiña:» Sasitik irten eta ikusi zuen bere gorputza mirariz estalia soñeko guziz zuriarekin, eta gorputza odoldu zion sasian bat batetan sortu ziran arrosetatik

amabi zuri eta beste ainbeste gorri arturik, joan zan Eleizara.

Sartu zan bertan begirune aundiarekin, eta Kristo gure Jauna adoratu, eta egiten zion ainbesteko ontasunez alaiturik, esan zion: Jaun Soberano, Zeru-lurren jabe eta gizonen Salbatzalle errukitsua, Zure miserikordia neurri gabeagatik umillki erregutzen dizut, ezen, seinalatu dezazula Zure Ama chit Santa eta nere Señoraren bitartez eman ziñidan induljenzia irabazteko eguna.

—Franzisko, esan zion gure Salbatzalleak nik ematen dizut nere Ama chit gozoaren bitartez eskatzen didazuna, eta nai det izan dedilla Pedro nere Apostoloa Erodesek lotua zeukan kateetatik askatua izan zan eguna (Abuztuaren lenbizikoa) aurreneko besperetatik asita bigaramon guzia, eguzkia sartu arterañoa.

—Jauna, esan zion berriz Franziskoz amorioz irazekirik; eskeintzen dizut nere biotz guzia mesede paregabe onen esker onean; baña ¿nola jakingo dute gizonak zure borondatea, eta nola sinistatuko dirate ni zure serbitzari char oni?

—Ori nere kontura geratzen da, eranzun zion Jaunak, zu, ordea, joango zera Erromara, eta esango diozu nere Ordezkoari, au dala nere borondatea, etn nik limurtuko diot biotza, kunplimentu eman dezayon. Eta apuko eta arazoak kendu eta desegiteko eramango dituzu mirari oen berri dakiten zure lagunen batzuek, baita sasitik artu ziñituen arrosa zuri eta gorriak. ere.—Au esanta, Aingeru taldeak kantatu zuen *Te Deum* bukaeraraño, eta gero desegindu zan ikuskera zerukoi ura.

MANUEL ANTONIO DE ANTIA.

(*Bukatuko da.*)

Afortunadamente, los casi infalibles presentimientos de la madre salieron esta vez fallidos; el *chandrió* de Fuenterrabía valió á su autor el empleo de Teniente, y la guerra terminó sin que los franceses *erre-bentaran* á Leguía.

Y no fué ciertamente, porque este no se expusiera á ello á cada instante; tales hazañas realizó el audaz montañés nabarro y tan grande fué el temor que llegó á infundir, que en todo el país se hizo proverbial, y se repetía muchos años despues, la frase de

«*Fermin Leguía*
Kontra biño alde obia.»

JUAN ITURRALDE Y SUIT.

PORZIUNKULAKO INDULJENZIAREN SORTZEA



III.

Bigaramonean egun sentian Franziskok artu zituen iru arrosa zuri gorri Trinitade guziz Santuaren erreberenzian, eta Fr. Bernardo Kintabal, Fr. Anjelo Reate eta Fr. Leon lagun zituela, joan zan eyaka Jesukristoren Ordekoengana, zeñari kontatu zion zearo Asisko Ama Birjiña Aingerueneko eleizan gertatu zitzaion guzia.

¡O Jauagoikoaren esku indartsua! Aita Santuak ez al-zuen aditu Franziskoren kondaira, eta usandu arrosen usai gozo miragarria, sentitu zuen beregan biotz mugida aundi bat, eta bai zeruko mandatariaren esanari sinistamentu osoa eman ere; eta onelako eginkizunetan usatu oi ziran bide eta neurriak alde betera utzirik, aukeratu zituen bertatik zazpi Obispo, zeñak ziran Asiskoa, Perusakoa, Lodiakoa, Espoletokoa, Foliñokoa, Nozera eta Gubiokoa, eta oei eman zien induljenzi au adierazteko enkargua.

(1) A Fermin Leguía más vale tenerlo en favor que en contra.

Egun ura irichi zanean, ezin konta ala jendetza bildu zan egikera aĩn otsaundiko artara. Aurrena predikatu zuen gure Aita San Franziskok, kontatuaz gertatutako guzia beterik zegoen aingeru serafiñen espiritu irazekiarekin, eta bukatu zuen esanaz, ala Jesukristo gure Jau-nak, nola lurreko aren Ordezkoak eman ziotela betiko induljenzia aundi ura.

Baña Jaungoikoaren obrak gizonen aldetik ikusi eziñak eta ezeztatuak izan oi diran bezela, ala izan zan au ere: alabaña Obispoak ez alzutun aditu induljenzia, betiko zala, danak betean kontra egin zioten Santuari, esanaz, etzitzayotela señaletu zenbat denborarako zan induljenzia, eta beragatik adieraziko zutela amar urteko bakarrrik zala, oitura zan bezela. Asmo onekin alcha zan Asisko Obispoa, eta Jaungoikoak mingaña mugiturik, esan zuen bere borondate guziaren kontra induljenzia izan zala emana *betiko*. Alaše ez geiago eta ez gichiago.

Pensatzea besterik ez dago Obispo aek nola miñdu eta sutuko ziran, amar urtekoa zala esateko elkarren artean tratatu, eta aitormen au aditu zutenean; argatik aetako bat miñkaisturik alcha zan, eta aren edadeari zegokion baño ausardi aundiagoarekin joan zan Asiskoaren kontra itz egitera; baño ala egiñ ustean, eta berak nai bezela amar urtekoa esan bearrean, mingañak traizio egin zion, eta guziz garbi eta egokiro esan zuen *betiko*. Joan zan irugarrena, eta oro bat gertatu zitzaion. Joan ziran laugarrena, bostgarrena, seigarrena eta zazpigarrena, eta danak bata bestearen ondoren amar urtekoa esan naye-an esan zuten *betiko*.

Itz batean, danok egin zuten egiñal guzia *amar* esateko, eta iñork ezin somatu izan zuen. Obispo aetako bakoitzak betiko itz au esan zuen indar ezkutukoren batek artaratzen bazituen bezela. Mirari onekin, edo obeto esateko, mirari sall onekin batzuek eta besteak eza-gutu zuten ori zala borondate guziak menderatu eta biotz guziak go-goak ematen dion eran mugitzen dituenaren naya. Ala bada, guzien poz kontentuekin geratu zan betiko adierazia zerutik jechitako jubileo edo barkamen au.

¡Zeiñ miragarria zegoen orduan San Franzisko lurreko Serafiñ ura! diote kondairatzalleak; bada ikustean irikia, pekatuaren katearekin lotuak zeuden animentzat, zeruko bidea, pozez zoraturik, eta erabili-liaz eskuan zeukan chartela infernuaren kontrako garaipenaren bandera bezela, deadar egiten zuen barrengo indar guziakin: «Guziok zeru-ra bialdu nai zaituztet.»

IV.

Onaraño esan danetik argiro ezagutzen da induljenzia au aurrenean irabazi zitekeala bakar-bakarrik Asisen, *Porziunkula* izendatzen dan Santa Maria Aingerueneko Eleizan; orain orde, Aita Santuak ala nai izan dutelako, irabazten da erlijiozko boto osoak egiten dituzten San Franziskoren Ordenako Eleiza guzietan; nola diran erlijioso Franziskoarrak, Santa Klararen mojak, Kapuchinak, Konzeziokoak, Isabelinak eta Aita San Franziskoren iru Erreglatakoren bat gordetzen duten gañerakoak, boto soleneak egiñik, erabatera edo komunitadean bizi badira, naiz Eleiz errezoak berdiñak izan ez; Aita Santuak 1748 ko Marchoaren bigarren egunean erabaki zuen bezela.

MANUEL ANTONIO DE ANTIA.

(Traduccion de la Indulgencia de la Porciúncula, por el M. R. P. Fr. José Coll.)

